

# «Koronabirusaren krisia gure pentsamoldea aldatzeko pizgarria izan daiteke»

**Xabier Olarra eta Fernando Rey Itzultzaileak.** Paolo Giordano idazle italiarraren 'Kutsaldian' saiakera-liburua euskaratu dute

## IRAITZ URKULO

**K**utsaldian' koronabirusaren inguruko saiakera-lan bitxia da, guztiz anomaloa, bizi dugun garaia dagokion bezala. Paolo Giordano otsailaren 29an hasi zen liburua osatzen duten artikulu laburrak idazten, Italian konfinatuta zegoelarik, birusaren hedapen-une latzenetan. Handik lasterrera ekarri zuten euskarara Xabier Olarrak (Tolosa, 1953) eta Fernando Reyk (Iruñea, 1961), beren etxeetako itxialditik. Itzulpena Erein argitaletxeak kaleratu du e-book formatuan.

Fernando Reyren esanetan, «liburuak denetik du: egunkari pertsonala ematen du batzuetan; bestetan, dibulgazio zientifikoko liburuxka, eta beste hainbatetan, gogoeta-liburua». Izan ere, Giordanok matematika eta fisikako kontzeptuak erabiltzen ditu birusaren gaineko berrien kaosa ordenatzeko, eta bere bizipenak tarikatzen ditu azalpenetan.

Autorea kontziente da jendeak bere testua irakurtzen duenerako egoera aldatua izango dela. Liburuan bada, ordea, birusaren inguruko estatistika eta egoerei gailentzen zaien zerbaite: etorkizunari zuzendutako begirada itxaropentsua. Horretan, itzultzaileak Giordanorekin bat datoz erabat. Xabier Olarraren ustez, «errealitatean aldaketa sakona egiteko abiapuntua izan beharko luke krisi honek».

– **Zeri buruzko liburua da 'Kutsaldian'?**

– Xabier Olarra: Izenburuak berak dioen bezala, bizi dugun kutsaldiari buruzkoa da. Koronabirusaren kutsaldian gertatzen ari diren fenomeno batzuk hartzen ditu gogoeta gai gisa, eta horiei buruzko iritzia ematen du. Ikasketaz zientzialaria da Paolo Giordano, nahiz eta orain arte nobelagile gisa ezaguna izan. Zientzialaria izateak ematen dio behar bada interes handiagoa haren lanari. Izan ere, badirudi nahasmendu garaiotan politikarietaz bertutua zuten arlo bat, zientziarena, aintzat hartzen hasiak direla berriro.

– **Nolako obra da?**

– X.O.: Otsailaren 19an Paolo Giordanok artikulu bat idatzi zuen 'Corriere della sera' egunkarian. Eta,

ondoren, kutsaldiari buruzko gogoeta sail bat agertzen jarraitu zuen hurrengo artikuluetan: zer den epidemia bat XXI. mendean, nola hedatzen den, zer eragin duen gobernuen jokabidean, gure portaeran, zer aldaketa ekar litzakeen, eta gogoeta interesgarri batzuk gai horiei buruz.

– **Zein generotan sailkatuko zenuket?**

– Fernando Rey: Saiakera labur bat da, nahiz eta Giordanoren esperientziak eta bizipenak ere agertzen diren. Gorago aipatutako artikulu horien haritik tiraka egindako hausnarketen bilduma bat da gehienbat. Elkarrekin lotutako artikulu laburrez osatutako bilduma bat.

– **Ausarta izan beharra dago epidemia bati buruz idazteko hura munduan barrena hedatzen ari den aldi berean.**

– X.O.: Nahasmendu garaietan denok bilatzen ditugu azalpenak, gertatu denaren arrazoiak zein diren, zer den zentzuzkoa garaioan egitea, nola aurre egin behar zaion 'eraso' honi, zer egin beharko litzatekeen etorkizunean holakorik berriro gerta ez dadin...

– **Bada datu berri edo ezezagunik liburuan? Zer ekarpen egiten diote Giordanoren hitzek gaiari?**

– F.R.: Azalpen zientifikoa onak dira, egokiak gutako edozeinek ongi ulertzeko zer den pandemia bat eta zein den kutsaldiaren gako. Eta, bestetik, gogoeta interesgarriak egiten ditu kutsaldia eragin duten mekanismoak uler ditzagun, eta ohar gaitzen zer dagoen halako krisi baten iturburuan.

– **Ezohiko itzulpena**

– **Nolakoa izan da itzulpen-prozesua?**

– F.R.: Erein argitaletxeak pentsatu zuen agian komeni zela liburua oraingo e-book gisa argitaratzea eta dena bere onera etortzen denean, agian, inprimatu eta zabaltzea. Xabierrek hari guztiak mugitu, eta testua itzultzeko proposamena egin zidan, elkarrekin egiteko eta nik gero azken testu-ari forma emateko. Monika Etxeberriak ere lagundu zigun pixka batean. Denbora baguenen, birusak gure etxea ere astindu zuen,



Xabier Olarra eta Fernando Rey, 'Kutsaldian' liburuen itzultzaileak. **MARIAN GORRAIZ**

etxealdi behartuan nintzen, itxialdian, eta ti-ta egin genuen, ez baitzen oso luzea. Gero, nik azken errepassoa egin eta kitto.

– **Oso sentsazio bitxia izan behar du liburu bat idatzia izan den testuinguru eta egoera berean edo oso antzekoan euskaratzeak. Nola sentitu zarete obra itzuli bitartean?**

– F.R.: Kezka eta intuizioak berberak genituen, beldur berak, Giordanok modu batean eta nik beste batean, aita oso larri nuelako. Baina sakoneko gogoetetan sentitu gara idazlearekin bat eginik batik bat. Jendeak lehengora

«Krisi hau bukatutzat eman eta aldaketa sakonik ez badago mundua eta harremanak antolatzeke moduan, amildegira goaz»

itzuli nahi du, deus gertatu ez baltz bezala lehengo bizimodua berreskuratu. Eta hori ez da posible, eta ez da ona. Krisi honek ekonomian, munduaren pertzepzioan, ekologian eta beste arlo askotan aldaketa sakona egiteko pizgarria izan behar luke. Konfinamendua bukatu bai, baina ez lehen bezala bizitzen segitzeko.

– **Etorkizun berri bat**

– **Giordanoren hitzetan, «kutsaldia gizakiok munduko ekosistemikiko dugun jarrera arduragabearen sintoma da».**

– F.R.: Hiperkonektibitatea, deforestazioa, aldaketa klimatikoa, espezieen desagertzea eta beste zenbait kontu daude pandemiaren jatorrian. Halako gehiagor ez dadin, horri guztiari begiratu behar zaio, eta munduaren antolamendua errotik aldatu.

– **Ez da, ordea, fatalismoan erortzen; aitzitik, garai anomalo hauek gure bizimodua birpentsatzera bultzatzen gaitu, «sufrikario hau alferrikakoa izan ez dadin».**

– F.R.: Alarma-deia izan liteke

pandemia hau, eta ikasbide bilakatu beharko genuke, baina gako, ezinbestean, politikan dago, ekonomian, kapitalismoaren oinarrietan. Krisi hau gure pentsamoldea aldatzeko pizgarria izan daiteke. Giordanok garbi uzten duenez, denok bat gara, mundua komunitate bakarra da, elkarri lotuak gaude, eta denentzako konponbideak behar dira. Eta beste gauza positibo bat ere nabarmentzen du, esperantza iturri dena berarentzat: norberaren babes hutsa ez baizik eta denen segurtasuna ziurtatzearen zeinen zintzo erantzun eta jokatu duen jende gehien-gehienak itxialdian. – X.O.: Neu ere bat nator, erabat, Giordanorekin gogoeta nagusietako batekin. Alegia, errealitatean aldaketa sakona egiteko abiapuntua izan beharko luke krisi honek. Zerk ekarri gaitu hona? Zer aldatu behar dugu? Nola bizi beharko genuke hemendik aurrera halakorik gerta ez dadin? Krisi hau bukatutzat eman eta aldaketa sakonik ez badago mundua eta harremanak antolatzeke moduan, amildegira goaz, jai daukagu.